

JASANGARRITASUN-ARRISKUAK (ISG)

TXERTATZEKO POLITIKA

LABORAL KUTXA TALDEAN

1 | Sarrera

Jasangarritasuna funtsezko zutabea da Laboral Kutxa Taldearen estrategian, gizartearen aurrerabidean eta klima-aldaketaren, ingurumenaren degradazioaren eta baliabideen agortzearen ondoriozko erronkei erantzuteko helburu orokorrean laguntzeko.

Hasiera-hasieratik eta kreditu-kooperatibaren izaerari lotuta, gestio etikoa, banku-jarduerak gizartearen duen inpaktuarekiko kezka, gobernantza korporatiboa eta ingurumenaren babesa Laboral Kutxa Taldearen lehentasunak izan dira.

2019. urtearen amaieran, Europako legegileek Zabalkunde Erregelamendua argitaratu zuten, gardentasuna areagotzeko eta erakundearen artean informazio konparagarria banatzeko aukerak sustatzeko. Informazio horren bidez, jasangarritasun-arriskuen integrazioari, jasangarritasun-arloko gorabehera kaltegarrien azterketari eta finantza-produktuei buruzko jasangarritasun-arloko informazio jakin bati ekiteko moduak alderatuko lituzkete.

Erregelamendu horrek webgunean inbertsio-erabakiak hartzeko prozesuan edota inbertsioen edo aseguruaren inguruko aholkularitzan jasangarritasun-arriskuak txertatzeko politikari buruzko informazioa argitaratzeko betebeharra ezartzen du.

Horren ondorioz, Laboral Kutxa Taldeak "Jasangarritasun-arriskuak txertatzeko politika" edo "ISG arriskuak txertatzeko politika" honi jarraitu dio ("Politika" aurrerantzean).

Politika honetan ezarritakoaz gain, Laboral Kutxa Taldeak ISG arriskuak txertatzeko barne-prozedura espezifiko batzuk ditu. Prozedura horietan, xehetasun handiagoarekin arautzen dira Politikan bildutako printzipioak.

2 | Politikaren aplikazio-eremua

Politika hori une oro aplikatuko zaie "finantza-merkatuetako parte-hartzaitzat" edo "finantza-aholkularitzat" hartzen diren Laboral Kutxa Taldeko erakundeei, Zabalkunde Erregelamenduak horretarako ezartzen duen definizioaren arabera. Honako erakunde hauek dira:

Caja Laboral Popular Coop. de Crédito (LK aurrerantzean) "finantza-aholkulari" gisa, "inbertsio-arloko aholkularitzako" zerbitzua ematen baitu.

- **Caja Laboral Gestión, SGIC SA (CLGestión aurrerantzean)**, "finantza-merkatuetako parte-hartzaile" gisa, inbertsio kolektiboko erakundearen (IKE) gestorea baita.

- **Caja Laboral Pensiones SA GFP (CLPensiones aurrerantzean)**, "finantza-merkatuetako parte-hartzaile" gisa, pentsio-funtsen gestorea baita.

3 | Politikaren onarpena eta berrikuspena

Politika eta haren aldaketa oro Caja Laboral Popular Coop. de Crédito erakundearen Kontseilu Errektoreak eta Caja Laboral Gestión, SGIC SA eta Caja Laboral Pensiones SA GFP erakundeen Administrazio Kontseiluek onartu behar dituzte.

Politika **aldizka** berrikusiko da, baita haren izaeran edo egituran eragin esanguratsua duten egoerak sortzen diren guztietan ere. Aldizkako berrikuspenen ondorioz Politikan egiten diren aldaketak ere arestian adierazitako administrazio- eta zuzendaritza-organoek berretsi beharko dituzte.

4 | ISG irizpideak eta jasangarritasun-arriskua txertatzea

Laboral Kutxa Taldeak ISG faktoreak eta jasangarritasun-arriskua txertatu ditu.

ISG irizpideak aldagai jakin batzuetan oinarritzen dira, funtsean. Aldagai horiek finantza-azterketen eremutik kanpo geratu ohi dira, baina ikuspuntu etikotik kritikoak izan daitezke eta, aldi berean, baldintzatu egin dezakete enpresa baten jarduna eta garapena eta, beraz, inbertsioaren balorazioa.

ISG irizpide horiek hiru talde handitan daude sailkatuta:

- **Ingurumen-irizpideak edo ingurumen-faktoreak (I):** Enpresen ingurumen-inpaktua eta konpainiek kutsadura-mailak eta karbono emisioak murrizteko egindako ahaleginak dituzte ardatz. Haien artean, honako hauek azpimarra daitezke: klima-aldaketa, berotegi-efektuko gasen emisioak, biodibertsitatearen galera, energia-efizientzia, uraren eta baliabideen agortzea eta hondakinen gestioa.
- **Irizpide edo faktore sozialak (S):** Pertsonen eta komunitateen eskubideei, ongizateari eta interesei lotutako alderdiak dituzte ardatz. Haien artean, honako hauek azpimarra daitezke: giza eskubideen errespetua, lan-estandarrik, haurren esplotazioa, bortxazko lanak, lan-inguruneko osasuna eta segurtasuna, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, edozein diskriminazio-mota, giza kapitalaren gestioa, tokiko komunitateekiko harremanak, gatazka-eremuetako jarduerak edo arma eztabaidagarrien erabilera.
- **Gobernantza-irizpideak (G):** Honako hauek dituzte ardatz: konpainien egitura eta antolamendua, haien barne-gestioa eta lidergoa, ordainsari-politikak, akziodunen eskubideak eta akziodunen eta administratzaileen arteko harremana, erabakiak hartzeko prozesua, emakumeen presentzia zuzendaritza-postuetan, etika profesionala, ustelkeria eta eroskeria eta gargentasuna informazioa zabaltzean.

ISG irizpideak txertatzean, inbertsioek gizartean eta ingurumenean izan ditzaketen ondorioak eta inpaktuak har daitezke kontuan inbertsioen azterketan. Aldi berean, **jasangarritasun-arriskua** (hots, gertatuz gero inbertsioaren balioan inpaktu negatibo materiala eragingo lukeen ingurumen-, gizarte- edo gobernantza-arloko edozein gertakari edo baldintza) **kontrolatzeko** tresna bat da.

5 | ISG arriskuak Laboral Kutxa Taldean txertatzeko prozedura

Laboral Kutxa Taldeak CLGestión eta CLPensiones erakundeen gestioa gauzatzean eta inbertsio-arloko aholkularitza-zerbitzua ematean ingurumen-faktoreen, faktore sozialen eta gobernantza-faktoreen (ISG) ondoriozko arriskuak eta aukerak gestionatzeko ardura du.

Arriskuen ikuspuntutik, ISG arriskuak txertatzea ohiko finantza-azterketaren neurri osagarria bat da, eta aktiboei buruzko informazio gehiago lortzea eta, ondorioz, inbertsioei lotutako arriskuen gestio hobetzea ahalbidetzen du.

Beraz, ISG arriskuak kontrolatzea, inbertsio-aukera berriak identifikatzea eta, era horretan, epe luzera gure bezeroei balio handiagoaren ekarpena egitea ahalbidetzea da helburua.

ISG arriskuak txertatzeko prozesuaren bidez:

- i. Finantza-ikuspuntutik materialak izanik arrisku bat ekar dezaketen eta, beraz, inbertsioen errentagarritasunean eragina izan dezaketen ISG faktoreak identifikatzen dira.
- ii. Aparteko finantza-informazio hori LKren aholkularitza-zerbitzuaren eta CLGestión erakundearen IKE-en zein CLPensiones erakundearen pentsio-funtzen inbertsioen esparruan aztertzen da.
- iii. LKren inbertsio-gomendioak egokitu egiten dira, eta IKE-etan eta pentsio-funtsetan inbertitzeko erabakiak hartzen dira aurreko informazioaren eta ohiko finantza-irizpideen eta finantza-arriskuen arabera.

5.1. ASG arriskuak txertatzeko eredia

Laboral Kutxa Taldeak CLGestión eta CLPensiones erakundeen inbertsioen gestioan eta inbertsio-arloko aholkularitzan ISG faktoreak eta arriskuak sistematikoki txertatzea ahalbidetzen duen eredu bat inplementatu du. Ereduak, halaber, trazabilitate osoa ziurtatzea ahalbidetu du, bezeroaren eta araugilearen aurrean inplementazioa egiaztatu ahal izateko.

Txertatzeko eredia honako zutabe hauetan dago oinarrituta:

1. ISG informazioa: Laboral Kutxa Taldeak ISG faktore eta arriskuei buruzko informazio espezifikoa jasotzen du datu espezializatuen hornitzaileen bitartez.

Datu kuantitatibo horiek informazio kualitatiboarekin osatzen dira (beharrezkotzat hartzen den kasuetan). Erabilitako informazioa desberdina izan daiteke, aztertu beharreko aktiboaren tipologiaren arabera (akzioak, errenta finko korporatiboa, zor publikoa, inbertsio kolektiboko erakundeak eta abar).

2. Txertatzeko irizpideak: Laboral Kutxa Taldeak metodologia espezifikoa bat ezarri du, eta, hari esker, ISG faktore eta arriskuei buruzko informazio-iturri guztiak kontuan hartzen eta baloratzen direla bermatzen du, ohiko finantza-azterketaren aldi berean, eta gestionatutako baliabideetarako inbertsio-erabakiak hartu edota bezeroei inbertitzeko gomendioak egin aurretik.

Azterketa horren bidez, aktibo guztien eta, bereziki, errentagarritasun/arrisku binomioa optimizatzeko arrisku material handia dutenen gestioa bultzatu eta hobetu nahi da.

Erabilitako metodologiak bermatzen du inbertitzen den ia aktibo guztien ISG faktore eta arriskuei buruzko informazioa badagoela eta, beraz, deskribatutako azterketa- eta hautaketa-prozesua aplikatu daitekeela.

3. Jarraipen- eta kontrol-sistema:

Inbertitzeko edo aktibo jakin bat gomendatzeko erabakia hartu ondoren, jarraipena egin behar da ISG faktoreak eta arriskuak denboran nolako bilakaera duten kontrolatzeko.

Jarraipena egituratzeko, zeregin jakin batzuk eta zeregin horietaz arduratuko diren areak zehazten dira, aldi-aldi inbertsioak hautatzeko irizpideekiko desbideratzeak identifikatu, jakinarazi eta kudeatu dituzten.

6 | ISG gobernu korporatiboa

Laboral Kutxa Taldeak konpromiso irmoa hartu du jasangarritasunarekin, eta, horretarako, funtsezkoa da Taldeko erakundearen goi-zuzendaritza ISG gobernantzan inplikatzea.

Goi-zuzendaritzaren inplikazioa eta eraginpean hartutako langile guztien ezagutza ziurtatzen duen gobernu-eredu bat diseinatu da erakunde bakoitzean.

6.1. ISG gobernu-eredua

Hizpide dugun politika betetzeari lotutako gobernu-eredua osatzen duten lan-mailak honako hauek dira: goi-zuzendaritza, kontrol-unitateak eta lantaldeak edo negozio-areak.

Politika hau Taldean betetzen dela bermatzeaz arduratuko dena Caja Laboral Popular Coop. de Crédito erakundearen Kontseilu Errektorea izango da. Ildo horretan, taldeko erakundeak kontrolatzeko funtzioei jarraikiz, araudiaren betetze-mailari buruz egindako azterketa emango zaio, aldizka (eta, hala badagokio, Administrazio Kontseiluari berari ere bai).

- ISG Gobernantza Caja Laboral Popular Coop. de Crédito erakundearen

Kontseilu Errektoreak jasangarritasunari buruzko gogoeta estrategikoa sustatzen du, eta arlo horretako araudiak ezarritako betebeharrak (zehazki, jasangarritasun-arriskuak aholkularitza-zerbitzuan behar bezala txertatzeko betebeharrak) betetzen direla bermatzeaz arduratzen da. Horretarako, beharrezkoak diren politikak, prozedurak eta neurriak ezarri beharko ditu, eta jasangarritasun-arloko betebeharrak betetzeko baliabide nahikoak eman beharko dizkio erakundeari. Erakundearen gainerako areek betetzeari lotutako edozein gorabeheraren berri eman beharko diote Kontseilu Errektoreari.

Araudia Beteazteko Departamentuak Politika honetan bildutako betebeharrak behar bezala betetzen direla berrikusiko du, aldizka, eta kontroletan kontuan hartu beharreko arrisku gehigarri gisa txertatuko du jasangarritasun-arriskua. Halaber, betetzeari buruzko azterketaren ondorioak erantsiko ditu Kontseilu Errektoreari igortzen dizkion aldizkako txostenetan.

-ISG Gobernantza Caja Laboral Gestión SGIIC SA erakunde

Administrazio Kontseiluak jasangarritasunari buruzko gogoeta estrategikoa sustatzen du, eta arlo horretako araudiak ezarritako betebeharrak (zehazki, jasangarritasun-arriskuak gestionatzen dituen inbertsio kolektiboko erakunde inbertsio-erabakietan behar bezala txertatzeko betebeharrak) betetzen direla bermatzeaz arduratzen da. Horretarako, beharrezkoak diren politikak, prozedurak eta neurriak ezarri beharko ditu, eta jasangarritasun-arloko betebeharrak betetzeko baliabide nahikoak eman beharko dizkio erakundeari. Erakundearen gainerako areak betetzeari lotutako edozein gorabeheraren berri eman beharko diote Administrazio Kontseiluari.

Arriskuak Gestionatzeko eta Araudia Beteazteko Areak Politika honetan bildutako betebeharrak behar bezala betetzen direla berrikusiko du, aldizka, eta kontroletan txertatuko du jasangarritasun-arriskua. Gainera, ISG informazioaren gobernantzaren arduraduna da. Informazio hori hiru hilean behin eguneratuko da, eta Araudia Beteazteko Areak Administrazio Kontseiluari aurkeztu beharko dio.

- ISG Gobernantza Caja Laboral Pensiones SA GFP erakunde

Administrazio Kontseiluak jasangarritasunari buruzko gogoeta estrategikoa sustatzen du, eta arlo horretako araudiak ezarritako betebeharrak (eta, zehazki, jasangarritasun-arriskuak gestionatzen dituen pensio-funtsen inbertsio-erabakietan behar bezala txertatzeko betebeharrak) betetzen direla bermatzeaz arduratzen da. Horretarako, beharrezkoak diren politikak, prozedurak eta neurriak ezarri beharko ditu, eta jasangarritasun-arloko betebeharrak betetzeko baliabide nahikoak eman beharko dizkio erakundeari. Erakundearen gainerako areak betetzeari lotutako edozein gorabeheraren berri eman beharko diote Administrazio Kontseiluari.

Arriskuak Gestionatzeko eta Araudia Beteazteko Areak Politika honetan bildutako betebeharrak behar bezala betetzen direla berrikusiko du, aldizka, eta kontroletan txertatuko du jasangarritasun-arriskua. Gainera, ISG informazioaren gobernantzaren arduraduna da. Informazio hori hiru hilean behin eguneratuko da, eta Araudia Beteazteko Areak Administrazio Kontseiluari aurkeztu beharko dio.

6.2. Jasangarritasunari buruzko informazioa eta txostena

Laboral Kutxa Taldeak erabateko gardentasuna lortu nahi du jasangarritasunaren eremuan, bezeroek Taldearen konpromisoa behar bezala ezagutu ahal izan dezaten eta arlo horretan dituzten ISG aurreikuspenekin eta lehentasunekin bat datorrela egiaztatu dezaten. Politika hau web korporatiboan argitaratuko da nahi duenak kontsultatzeko

7 | Politikaren ezaugarriak

Bertsioa	Data	Organoa	Arrazoa	Aldatutako artikulua
1	2021/02/26	Kontseilu Errektorea	Hasierako onarpena	